

NAHIKO! 5-6

BERDINTASUNEZ ETA KIDETASUNEZ BIZI FAMILIAN

6

UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEEN GUIDA (1/2)

1

HELBURUAK ETA EDUKIAK

Unitate didaktiko honek bi helburu nagusi ditu: **bai oraingo eta bai etorkizuneko familia eta bikoteko harremanak, giza eskubideetan oinarriturik, berdintasunez eta kidetasunez bizi daitezkeela aldarrikatu** eta, bi ikasturtez eginiko bidea jaso, tratu txarren kontrako eta emakumeen eskubideen aldeko ibilbide honi amaiera eman. Bukaera horrek erabat positiboa izan nahi du, tratu txarreruntz eramaten gaituzten jarrera arriskuak ahaztu gabe, **tratu onerantz eramaten gaituztenak azpimarratu** nahi ditugu, gure ikasleentzat erreferentzi positiboak bildu eta bultzatuz. Bide arriskutsuak ezagutu ondoren, ditugun edota eduki ditzakegun gauza eta pertsona onak gehiago baloratu, zaindu, maite eta defendatu ditzagun.

Horretarako, 5. mailan **landutako hainbat kontzeptu eta jolas** (autoestima, nor naiz ni, zein da nere bizitza proiektua, laguntzen duten hitzak...) eta seigarren mailako guztiak (emakumeak eta gizonak arlo guztietan parekotasunez bizitzeko ezinbesteko lazo txuria edo emakumeen giza eskubideak eta gizonezkoen etxearen eta familiaren arduraz jabetzea) jaso nahi izan ditugu unitate honen jolas eta koadernoetan.

“Familiako Gizakatea-2: hitzen katea” jolasak, adibidez, bosgarren unitate didaktikoan **erabilitako etxebizitzataula giza eskubideak errespetatuz bizitzen laguntzen duten hitz positiboz betetzea** proposatzen du. Eszenatoki hori tratu txarren eszenatokia den eta izan daitekeen bezala, tratu onen eta zoriontasunaren eszenatokia izan daitekeelako gu horretan saiatzen bagara, guk horrela nahi eta egiten badugu.

Beste jolasak berriz, “Bihotz minez” aholkularitza sentimentala jolasak, **beraiek bezalako neska-mutil gazteen harreman ezberdinak jartzen dizkie eskura neska-mutilei, harreman horiek aztertu eta baloratu ditzaten, beraientzako zeintzuk nahi dituzten bereiztuz eta zeintzuk uxatu nahi dituzten ezagutaraziz**. Kasua iristen denean, errekurtsio eta erreferentziak izanez nahi dutena bilatzeko eta nahi duten bikote harremana eraiki dezaten.

Ildo horretatik, neska-mutilei oraingo familiari eskutitza idaztea eta etorkizuneko bikoteari maitasun kanta egitea eskatzen zaie. Beraien **oraingo bizitzaren baloraketa egin eta esker ona azaldu dezaten. Etorkizuneko bizimodua jadanik egiten has daitezten, bizimodu horren mugak, arauak eta norabidea jadanik erabakitzen joan daitezten.**

Zentzu baikor eta eraginkor horretan eskatzen zaie etxeko aita eta amari, edo familiako beste gizon eta emakume bati, beraien maiteari maitasun karta idaztea. **Neska-mutilen erreferentzi eta ispilu izan dadin bere maitasuna, inplizitoki bizitzen ari direna esplizitoki ezagutu eta baloratu dezaten.** Aitaama edota senideak, aita-ama edo senide funtzioaz gain bere sentimenduak, proiektuak, historia... bizitza dutela uler dezaten, etorkizunean beraiek ere horrela egin dezaten.

Ikasturtean zehar aldatzen Joan zaigu **eguneroko bizitzaren bandera olinpikoa** bere osotasunera iritsiko da ikasturte amaiera honetan. Lehen hiruhilabetean, uztai beltza txuria bilakatu genuen (nazio arteko lazo txuriaren antzera) eta emakumeen ikurra gehitu genion. Emakumeen giza eskubideak aldarrikatu genituen modu honetan, **tratu txarren aurreko tolerantziarik gabeko portaera.** Bigarren hiruhilabetean, gizonen ikurra jarri genion uztai horiari, familiaren uztaiari, **gizonen etxeko inplikaziorik gabe, tratu onen olinpiada hau ezin genuela irabazi adieraziz.** Etxeko ardurak justiziaz erdibanatu gabe, ezinezkoa zela familia tratu onen muturrerantz eramatea, tratu txarren muturrerantz abiatzen ari ginelako. Hirugarren hiruhilabete honetan, gizon eta emakumeen ikurrak ipini ditugu beste hiru uztaitan: ni-neu, lana eta gizartea. Aurreko uztai biak moldatu eta egin ondoren, hiru hauek loratuko balira bezala, eginahalek bere fruitua emanaz, emakumeen eta gizonen parekotasuna bizitzaren arlo guztietan aldarrikatuz, guztiontzat etorkizun hobea ekarriko duen parekotasuna.

2 MATERIALAK ETA EKINTZAK

Unitate didaktiko honek **bi material osagarri** hauek ditu:

- 1.- "Familiako giza katea-2: Familiaren hitz katea" jolasa.
- 2.- "Bihotz Minez" jolasa.

Eta **lau koaderno** hauek:

- Irakaslearen gida, koaderno hau eta halako beste bat (1/2 eta 2/2).
- Ikaslearen "Berdintasunez bizi familian" koaderno, aurrekoak bezala kolore horikoa.
- Familiaren "Berdintasunez bizi familian" koaderno, kolore berdea duena.




3

"FAMILIAREN HITZ KATEA, FAMILIA GIZA KATEA - 2" JOLASA

Taldean jolasteko mahai-jolasa.

OSAGARRIAK:

- **Etxebizitza** adierazten duen taula: logelak, sukaldea, egongela, balkoiak, komunak... (5. Unitatean erabilitakoa)
- **420 hizki** edo letra, fondo txuria dutenak, hitzak euskaraz osatzeko.
- **420 hizki** edo letra, koloreko fondoak dutenak, hitzak gaztelaniaz osatzeko.
- **4 dado** (5. unitatean erabilitakoak).



TAULA (ETXEBIZITZA):

Etxebizitzaren **hormak** beltzez adierazita daude. Ezin da hormen (marra beltz hauen) gainetik pasa. Gela batetik bestera pasatzeko atetik (marra beltzarik gabeko lauki luzetik) pasa behar da. Zera adierazi nahi du taulak: tratuen onen ohizko eszenatokia.

Neurri ezberdinetako **laukitxoak** daude. Hizkiak, lauki txikien neurrikoak dira. Beste lauki handietan, hizki bat baino gehiago jar daiteke.

Logelen izenak dituzten laukitxoak (egongela, sukaldea...), hitzak hasteko laukitxoak dira. Baina, horietako lauki bakoitzatik soilsoilik hitz-kate bat hasi daiteke partida bakoitzean.

Logela nagusian bi laukitxo berezi daude, gorria eta horia. Jolasa hor hasi behar da. Bakoitzean hitz-kate bat hasi daitekeelarik.

DADOAK:

Talde bakoitza dado batekin jolastuko da. Txanda bakoitzean, talde guztiek dadoa botako dute. Lortutako puntuen haina letra hartuko dute txanda horretan. Puntu gehien lortu dituen taldea hasiko da hitzak osatzen taula gainean.

JOLASA: HITZAK ETA HITZ-KATEAK EGIN

Jolasaren dinamikaren helburua hauxe da: **etxea hitzez eta hitz-katez bete**. Kidetasunez, errespetoz eta maitasunez giza eskubideen eredia eta tratu onak adierazten, sortzen eta eragiten duten hitzez bete eguneroko bizitzaren eszenatokia.

Dadoen emaitzen arabera, taldeek hizkiak hartu eta, txanda jarraituz, txanda bakoitzean hitz bat gehitzen saiatuko dira. Beren hizki guztiak jarri dituztenean edota inork jarraitu ezin duenean, taldeei sobratu zaizkien letrak poltsara botako dira. Ondoren, berriro dadoak jaurti, emaitzen arabera hizkiak hartuko dira eta, emaitzaren arabera txanda errespetatuz, jolasa jarraituko da.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A | L | A | I | A | U |
| S | A | R | T | A | E |
| U | S | K | A | R | A |
| L | A | G | U | N | A |

Jolasteko ezarri dugun denbora bukatzen denean, hizki guztiak bukatzen direnean, edota inork hitz berririk egin ezin ez duenean, jolasa bukatu da.

NOLA EGIN ETA BALORATU HITZAK:

Hitza esaten denean, "laguna" esan nahi da, baina "lagunsarea", "lagunmina", "lagunafaria", "ondoeginduzu", "maitezaitu" eta horrelako guztiak ere bai.

1.- Hasierako hitzak:

Etxeko gelen izenak dituzten laukitxotik hasiz. Baina, horietako lauki bakoitzatik soil-soilik hitz-kate bat hasi daiteke partida bakoitzean. Adibidez, "ikaskide".
Puntuazioa: jarritako hizki kopurua. Adibidean, 8 puntu.

2.- Trabeskako hitzak (hitz gurutzatuak):

Jarrita dagoen hitz bat zeharkatuz, azkena ez den bere letra bat erabiliz, hitza osatu. Adibidez, "ikaskide" hitzarekin "lagunak" gurutzatuz.
Puntuazioa: hitz berrian jarritako hizki kopurua.
Adibidean, 6 puntu (a-k ez du baliorik).

3.- Hitz-kateak:

Egindako hitz baten jarraian, bere azken letra erabiliz, beste hitz bat eginez. Adibidez, "ikaskidenplegua".
Puntuazioa: hitz-kate osoan dauden hizki kopurua.
Adibidean, 15 puntu. Zenbat eta luzeago izan katea orduan eta puntu gehiago. Adibidez, "ikaskidenplegusarta" kateak 21 puntu.

4.- Balio Bikoitza:


Hitz bat egiterakoan, erabiltzen diren hizki guztiak **kolore berekoak** badira, bizitza esparru berekoak alegia, puntuazioa bikoiztu egingo da.

JOLASTEKO BI ERA:**1.- Taldeka:**

Talde bakoitzak txanda bakoitzean lortzen dituen puntuak batuz, jolasaren bukaeran puntu gehien lortu dituen taldeak irabaziko du.

2.- Erronka:

Nahiz taldeka jolastu, denok batera jolasten dute irakasleak jarritako erronka gainditzeko. Adibidez, jarritako denboran puntuazio jakin bat lortzea (300, 400... puntu), etxeko gela guztietan hitz-kateak izatea denbora edota txanda kopuru jakin batean, etxeko gela nagusi guztietan puntuazio jakin bat lortzea, letra kopuru bat eman eta guzti-guztiak erabiltzea...



NAHIKO! 5-6

BERDINTASUNEZ ETA KIDETASUNEZ BIZI FAMILIAN

6

UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEEN GUIDA (2/2)

HITZAK EUSKARAZ

Hona hizkiak egiteko sartu diren hitzak. Jakina, beraien hizkiak erabiliz, beste hitz asko eta asko egin daitezke:

Urdinak (Ni-neu):

AUTONOMIA, OSASUNA, AUTOESTIMUA, IKASI, ZORIONA, KONFIANTZA, INDARRA, ADOREA, DIRUA, KEMENA, SENTIMENDUAK, ADIMENA, SORMENA, ALAITASUNA...

Horiak (Familia):

MAITE ZAITUT, BARKATU, DENBORA, EGUN ON, ERRESPETUA, ONDO EGIN DUZU, ZUREKIN GAUDE, MUXU, BABESA, BARRE, GIZA ESKUBIDEAK, POZA, GOXO...

Berdeak (Gizartea):

LAGUNAK, ELKARTEA, FESTA, BABESA, KIDEAK, ERAKUNDEAK, TELEFONOA, BIDAIK, HIZKETA, UDALA, EPAILEA, LAGUNTZA, HARREMANAK, SAREA, BESARKADA, GU...

Gorriak (Lana):

PRESTAKETA, LANA, HOBEKUNTZA, OPORRAK, BAJA, LANPOSTUA, OGIBIDEA, SOLDATA, LANBIDEA, LANKIDEAK, FORMAZIOA, IKASKETAK, HIZKUNTZAK...

AHOLKU-3

Kaixo, lagunak: Orain dela bi hilabete mutil batekin nabil eta zalantza bat dut.

Mutil jatorra da. Nere ikaskidea txikitatik. Neri guapoa iruditzen zait. Ez da zaratatsu horietakoa. Ez du gehiegi edaten. Ez da gehiegi nabarmentzen, baina oso ezaguna eta apreziatua da herrian. Nere amak ere esan zidan, "mutil majoa dirudi". Neska asko izan ditu atzetik, baina ez da askorekin liatu. "Altxor bat".

Elkarrekin irtetzeko esan zidanean poztu egin nintzen eta baietz esan nion. "Hau suertea" pentsatu nuen, eta lagunek ere hori esan zidaten. Baina, orain, ez dakit, ez nago hain pozik. Aspertu edo egiten naiz. Ilusiorik gabe bezala. Denek esaten didate suerte handia dudala eta zein ondo, baina egia esateko... Bestalde, denek gauza bera esaten badidate... Normala al da egoera hau? Pasako zait bajoia, ez? Zer egin dezaket? Erantzun, mesedez.



BIHOTZ MINEZ
Antzetzuz ezazue egoera hau jarraipena emanaz
Representad esta situación dándole continuidad

Aholku - 1

Nazio: Mutil batek berekin hitzatzeko eskatu di eta zikantzar beretik nago.

Aide: Batek gustakoa dut. Atua eta guapoa da, arakada handia du nesken artean. Oso akasa da, berriz dago batek egiten eta adarra jaten jende gustari. Bizenen libeekin edo katekin bertan, segituan hasien da guzuekin brometan. Berarekin oso ondo pasatzen dut. Bero, egia esateko, ez dut. Bultzatzen pasatzen da bere broma eta zirekin eta batak haseretsu egiten dira berarekin.

Bestalde: Nerekin ez duela apenas hitz egiten konturatu naiz. Beti besteekin hitz egiten dut, besteak zikantzen dituzte. Nik bane egiten.

Nazio: ¡Hola! Un chico me ha dicho para salir con él y tengo muchas dudas.

Por una parte: me gusta. Es alto y guapo, tiene mucho éxito entre las chicas. Es muy alegre, siempre está contando chistes y torrando a pelo a todo el mundo. En la calle o en los bares, enseguida bromea con la gente. Me lo paso muy bien con él. Bueno, siempre-siempre, no. A veces se pasa tres pueblos con sus bromas y sus comentarios, y la gente se enfada con él.

Lo que pasa es que: por otro lado, me he dado cuenta de



BIHOTZ MINEZ
Antzetzuz ezazue egoera hau jarraipena emanaz
Representad esta situación dándole continuidad

Aholku - 6

Aupa! Aholku bat behar dut neska bati buruz.

Aspaldik ezagutzen dut, baina orain dela gutxi arte berekin bakarrik hitz egin gabe nengoen. Nere esagun eta lagun batzuekin hitzatzeko da lehenago eta horiek atzera botatzen dira. Badakit esaten dutenaren erdia gezurra izango dela, neskak utzi zituzkiko amoru-hitzak izango dira, baina nola ere... zer pentsatuko du jendeak? Ni ere biltzaile naiz beste bi neskekin aurreko urtean, baina mutuekin ezberdina da. Aia ez?

Gauza da atentzia delu ditala. Eten dut burutik kendu eta bane egiteko duen modu horiek zozatu egiten nau. Hitzak gabe uertzen gaitza dirud eta asiatzen berdin pentsatzen dugua iruditzen zait. Baina beaur naiz, berarekin beste bat baino ez dala naitzen izango eta ni ere utziko ez dala naitzen. Nola esan dezaket zer egin? Nola jain dezaket zer nahi duzun? Nola somatu berak nahi duena?

Buenas, necesito un consejo sobre una chica.

La conozco desde hace mucho, pero hasta hace poco no había hablado a solas con ella. Ella ha salido con algunos amigos y conocidos míos antes de ahora y eso me da qué pensar. Ya sé que lo que cuentan estos será mentira y venganza porque ella les dejó, pero... ¿Qué va a pensar la gente de mí? Yo también he salido con dos chicas este último año, pero el caso de las chicas es diferente, ¿no?

La cosa es que me he fijado en ella. No me la puedo quitar de la cabeza y me encanta su forma de ser. Parece que nos entendemos sin palabras y, a veces, que pensamos lo mismo. Pero tengo miedo de si no será un malis para ella y si no me dejará también a mí. ¿Cómo puedo decidirme? ¿Cómo puedo saber qué hacer? ¿Cómo puedo saber lo que ella quiere?



BIHOTZ MINEZ
Antzetzuz ezazue egoera hau jarraipena emanaz
Representad esta situación dándole continuidad

Aholku - 26

bitzeko idazten zuten.

ni eta gauzak ezin kontatzen dizkiran. Berarekin oso ondo pasatzen da.

a duela nabaritzen da plai bat puden bere alde bezala in di, eta malis beti errepitetz eta atzeko, orain ik berek ere bai espero dut. Zer iru...

Muy buenas, amigas. Os escribo para contaros lo contenta que estoy y para deseáros a todas mi misma suerte.

Llevo un año y medio saliendo con un chico y las cosas van fenomenal. Tengo confianza plena en él, tanto para hablar como en su comportamiento. Lo pasamos muy bien cuando estamos juntos y puedo decir que es mi mejor amigo. Me gusta mucho.

Además, noto que él confía plenamente en mí. Siempre me anima a hacer mis cosas y se alegra mucho cuando me salen bien. Está siempre de mi parte, me siento muy valorada. Bueno, cuando no está de acuerdo me dice y tenemos discusiones acaloradas, pero siempre con respeto y aprendiendo mutuamente. La verdad, me ha ayudado mucho a ser quien ahora soy. Y yo a él.

A ver si sigue esta noche. Esto espero. ¿Qué os parece?